

Bostaitzetak hitz egingo balu...

Erdi Aroa Gipuzkoan: ez Errege galtzadarik, ez herriarteko zubirik... hala ere, erregeen korreoa "sin falta" iristen zen, postak ekartzen zuelako. Posta, erregeek emandako gutunak banatzeko, probintzia barruan erabiltzen ziren zaldiei esaten zitzaien; posta hauek puntu jakin batzuk izaten zituzten korreoa banatzeko: *posta-lekuak*.



Baina, bidealdiak askotan neketsuak izaten ziren (mendiak, lokaztegiak, euri-jasak...); horregatik, posta-leku batzuetan aterpe bat izaten zen, bertan posta-zaldunak, hurrengo posta lekura joan aurretik, atseden har zezan.

Eta Baliarrain gaineko posta-leku honetan (gaur *Bostaitzeta*) aterpea ez ezik, ur-iturria ere bazegoen, zaldunek eta abereek ekartzen zuten egarria ase zezaten.

Horretaz gain, Gaintza, Altzaga eta Baliarraingo arduradunak, besteak beste, Bostaitzetan biltzen ziren euren gorabeheretaz hitz egiteko (ganaduz, barrutien mugez...).

Beraz, Bostaitzetako parajetik pasatzea gure historia zaharra isilean mantentzen duen lekutik pasatzea da; zenbat kontu, tratu, haserre, festa...? auskalo; horregatik Bostaitzetak hitz egingo balu...



Sarbideak



Tolosaldea



Informazio orokorra

Festak:

Abuztuak 15: Andra Mari Jaiak

Zerbitzuak:

Udaletxea: 943-889003
 Tolosaldea Tour: 943-654972
 Zartagi Aterpea eta Jatetexea: 943-163076
 Baserriko produktuak: Irabi-Azpi: 943-887479
 Gorostartzu: 943-887329

Tolosaldea Bus: 943-650621
 Haurrentzako parkea
 Pic-nic (San Joan Iturrian)
 Erakusketa gela (Zartagi)
 Pilotalekua



IBILALDIAK TOLOSALDEAN BARRENA



BALIARRAIN

Ibilbide erraza 3,4 km


3

1 San Joan iturriko paraje honetan ur-putzu nahiko garrantzitsua egon izan da betidanik; estalitako harraskan makina bat arropa garbituko zituzten garai batean eta bertan gure arbasoak askotan bildu ohi ziren. Gero baseliza bat altxatu zen, San Joan Bataiatzaileari eskainia. Honen lehen aipamen idatzia 1653ko dokumentu batean ematen zaigu. Azkeneko meza XIX. mendearen hasieran eman zen. Gaur egun, leku honetan aztarnak besterik ez dira gelditzen.




2 Altzagarate. Altzagako auzo kokor hau bisita merezi duen txokoa duzu. Baselizak XV. mendeko amabirjinaren irudia du eta Goierrri eskualdera ikusmiran egoteko leku ezin hobea da.

3 Bostaitzeta.




Urubia

4 Urubia: Baso hauetan barrena zoazela, baliteke begiratu sentitzea. Agian adar artean edo zuhaitz-enbor baten zuloan den urubia izan liteke, ilusentia noiz iritsiko zain. Orduantxe hasten baita bere ulu tristeak egiten eta, bere burua itsu-itsuan jaurtiz, intsektu, sagu, anfibio edo txori txikiak ehizatzen.



Ibilbide erraza



Iraupena
1o. 10'
Luzera
3400 m.
Desnibela
50 m.

Ibilbidea hasteko, zoaz San Joan-iturriraino, horretarako, herriko plazatik —informazio-panela dagoen tokitik— abiatu eta bi kilometro egin behar dira. Han baduzu aparkaleku bat. Aparkalekutik 50 bat metro jaitsi eta ikusiko duzu lehenengo seinalea, Altzagarate 1,6 km dioena.

Ondoren Abalzelai behekoa baserria atzean utzi eta jo ezazu eskuinera, aurreraxeago basoko argigune batera irten arte. Hemen bidearen arrastoa galdu egiten da une batez baina, lasai, behealdean eskuin aldetik agertuko zaizu berriro.

Tapa-tapa segi eta, bidegurutzerantz heltzean, gora eta ezkerrean jarraitu, Altzagarate auzora iritsi arte. Han hartzazu ezkerrean eta, Burnisagasti baserrik igaro ondoren, hel iezaiozu goiari eskuineko bidetik. Gora egin ahala Altzagamendi bueltan hartuko duzu Bostaitzetara iristeko.



Baliarrain

Bostaitzetan den seinaleak bi aukera ematen ditu: ibilbidearen abiapuntura bueltatu —Baliarrainera— edo, bestela, Altzaga eta Gaintza herriak bisitatzera joan.